Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rufino Segura Errasti

Eskoriatza, Gipuzkoa (1937)



Aurkibidea

Biografia



Eskoriatzako Zarimutz elizateko "Segurena" baserrian jaio zen. 26 urtera arte baserrian bizi eta bertan lanean jardundakoa; baserrian etorkizun gutxi zegoela ikusita, Eskoriatzara joan zen lan egitera.

Zintak

ESK-030

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-01-01
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

ESK-031

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2006-01-01
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Jatorria; Eskoriatzako auzoak

- **Erref**: ESK-030/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Aita, "Segurena" baserrikoa. Ama, auzo bereko "Nagiturri" baserrikoa. Eskolara Marulandara joan zen umetan. Aurretik badirudi eliza ondoan eskola bat egon zela, baina berak ez zuen hori ezagutu. Marulanda auzoa, izatez, Zarimutz auzoarekin bat egiten du. Desagertutako baserri izen batzuk.

Transkripzioa
- Eta aitta zan basarri honetakua?
- Aitta basarri honetakua.
- Basarrixan izena esan dozu zala...?
- Segurena.
- Segurena. Eta ama nungua zan, nun jaixotakua?
- Ama Nagiturri, Nagiturri basarrian.
- Eta hori ze dao hemen bertan auzuan, edo...?
- Bertan auzuen han bestaldetik, bai.
- Eta, orduan, ume-umetatik zu basarrixan bi izan zara, hemen bertan...
- A, bai. Nik... Basarrixen edo hamen. Hamendik eskolara faten gitzen horra Maulandara edo behera. Hor egon zan eskolia. Hemen bertan be uste dot eskolia egon zala hor elixa-kontran lehenau. Baiña nik hor ez naben ezautu. Gu faten gitzen behera, Maulandara.
- Oseake, aurrekuek, biharbada, horkua ezautuko zeben, ez? Horko eskolia.
- Bai. Baiña Maulanda da, berau auzuau da. Zarimutz ta Maulanda dana da

Zarimutz auzua.
- Bai, gaiñera, lehengunian esaten zenduan, ez? Maulanda ipintzen da, baiña berez Zarimutz auzua da, ez?
- Zarimutz auzua, bai.
- Orduan, Zarimutz haundixa da, ez? Bai, terreno aldetik eta basarrixak be...
- Bueno, haundixa [bada], bai, hogeta xei basarri edo zien lehen. Oin batzuk, ba... batenbatzuk galduta daz basarri batzuk.
- Bai? Gogoratzen dozu basarrin baten izena oin galduta dauana ta...
- Galduta dauena? Bai, Zelaizueta bat. Klaro, oin beste batek erositta dauko, baiñe... beste batek ardixek-eta ibiltten dittu , baiña ez da bizi iñor.
- A, orduan, basarrixa berez badao, osea, basarrixa zutiñik dao, baiña...
- Basarrixe zutiñik dao. Ta beste bat Gorosarri be bai. Gorosarri be... ha ya basarrixoi jausitta dao. Ha be oin beste batek erositta dauko, baiña...

2. Inguruko basoak; egurra trenez Gasteizera nola eramaten zuten

- **Erref**: ESK-030/004
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Ingurua asko aldatu da. Lehenago lur-sail guztiak landu egiten ziren. Egun, zelai edo pinudiak dira gehienak. Basoak nolakoak ziren; ira-sail handiak zeuden. Umea zenean ere pinudi txikiren bat ezagutu zuen. Bertako basoak: haritza, pagoa, ametza, urkia... Sutarako egurra. Egurra, trenez garraiatzen zen; nola kargatzen zuten egurra. Lagun asko behar izaten ziren egurra trenean kargatzeko. Gasteizera eramaten zen egur gehiena.

3. Sutarako egurra bezeroei nola eramaten zien

- **Erref**: ESK-030/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Egurra nora saltzen zuten. Idiekin kalera eramaten zuen sarritan egurra, bezeroengana.

Transkripzioa
- Eta, orduan, Vitorixara bialtzen zenduen egurra. Hemen Aretxabaletan ta Eskoriatzan fabriketara-ta edo, ez dakit, sutarako beste...
- Nik...

- ... toki batzutara ez zan saltzen?
- ... gero idixekin behin baiño gehixaotan burkada asko erunde nao kalera. Kalien nauken hiru edo lau bezero nauken ta... Kargau hor goixen, hor gorau ondion, e! Ya Araba partien dao ha basua. Ta han kargau ta kamiñuen oingo moduen zerik ez auen...
- Trafikorik...
- Oingo moduen trafikoik, eta idixekin kalera. Ba, biher izeten zien...
- Orduak, ez? Juan eta etorri ein orduko...
- Atsalde osue biher izeten zan, atsalde osue. Burdixe kargau ta bueltie eitten atsalde osue biher izeten zan.
- Eta bezeruak ze izaten zian, partikularrak edo...?
- Bai, ba... edo jentia apopillo eukienak eta horrek biher izeten [aben] asko. Jentia apopillo eukitten euenak eta batzuk [be aazan] ta harek biher izeten euen egur asko.

4. Idien garrantzia baserriko lanetan; nola gobernatzen ziren

- **Erref**: ESK-030/007
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:11:35. **Bukatu**: 00:15:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Egurra idiekin garraiatzen zen kalera. Idien garrantzia baserriko lanetan. Idiak nola zaintzen ziren; zer ematen zitzaien jateko. Lehenago pentsu gutxi ematen zitzaien; batez ere belarra, lastoa; e.a. Aiorba ere oso ona izaten zen idientzako.

5. Ume-umetatik ganaduzain; trenbide inguruan arrisku handia

- **Erref**: ESK-030/008
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Abereak gobernatzeko zaletasun handia betidanik. Ume-umetatik ganaduzain. Sarritan eskolara joan gabe geratzen zen, baina bera gustura. Basora ateratzen zituen abereak, eta orduan ere zaintzen ibili behar izaten zen, trena oso arriskutsua zen eta. Trenak ganaduren bat harrapatuz gero auzokoen artean banatzen zuten okela.

6. Ermandadearen inguruko azalpenak

- **Erref**: ESK-030/009
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:22:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Ermandadea. Non elkartzen ziren; zein izaten zen ermandadearen lana. Egun handia izaten zen; idiak dotoretu egiten ziren... Ardi-larrua eta zamarrak.

7. Idi gazteak egokienak bertako lur-sailetarako

- **Erref**: ESK-030/010
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:24:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Inguruko soroetan lan egiteko zeintzuk izaten ziren idi egokienak. Idi gazteak hobeto moldatzen ziren bertako lur-sailetan. Gerora, hazitakoan, Gasteiz aldera saltzen ziren. Ganadu-tratantea.

8. Idien inguruko azalpenak

- **Erref**: ESK-030/011
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:24:20. **Bukatu**: 00:27:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Idiek, behiek, e.a izenak izaten zituzten. Ikasi artean, umeren bat ibili behar izaten zen aurretik gidatzen. Baina behin ikasi ondoren, (eta azkar ikasten zuten, dirudienez) bakarrik ere ongi moldatzen ziren.

9. Perratzailea Marulandara joaten zen igandetan

- **Erref**: ESK-030/012
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:27:25. **Bukatu**: 00:28:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:
Marulandan perratokia zegoen eta perratzailea igandetan joaten zen bertara. Normalean idiak perratzen ziren. Lurraren arabera, perra gehiago edo gutxiago behar izaten zuten; gehiago gastatzen ziren lur klase batzuetan. Perratzailearen lanaren beherakada.

Transkripzioa
- Eta, gero, lehen esan dou perratzaillia bazeuala, ez?
- Bai.
- Idixak-eta perratzera nora eruaten zenduezen?
- Hona domeka goxetan etorten zan horra behera, Maulandara. Hor perratokixa ifinitta euen ta horra etortzen zan domeka goxetan. Domeka goxetan atara biher izeten gittuen.
- Eta ze izaten zan, idixak bakarrik perratzen zian edo…?
- Behixek normalien ez zien perretan. Ez, behixek, ba… bai, batenbat koja edo auelako noizbaitten igual perrauko zan, baiña bestela ez. Idixek perretan zien. Ta idixek be, ba, perrau… asko ez zien ibiltten, e? Hamen… Beste toki batzuetan hor harri-bidiek dazen tokixen-ta perrak gehixau falta izeten zien. Hamen hainbeste ez [dotsien] falta eitten perrak. Baiña hamen be perrau eitten zien puskat, bai.
- Eta perratzaille bakarra zeuan orduan hona Maulandara etortzen zana?
- Bai. Eskoriatzatik… Hak Eskoriatzan be eitten euen lana ta gero domeka goxetan hamenguek eitten zittuen. Ba, perratzaille… perratzaille… Beti perratzaillie, perratzaillie, ba, hak hortan bizimodue etaraten euen.
- Hori be poliki-poliki galtzen juango zan, ez?
- Bai, bai…
- Idixak ya kentzen ta…
- Bai, ya gero idixek-eta kendu ein zien eta…
- Eta perratokixak jarraitzen dau hor Maulandan?
- Ya ez, ya kenduta dao.

10. Gerraosteko eskola urteak

- **Erref**: ESK-030/013
- **Iraupena**: 0:05:30. **Hasi**: 00:28:25. **Bukatu**: 00:33:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskola kontuak. Sei urte ingururekin hasi zen eskolan, eta normalean 14 urte orduko amaitu egiten zen. Tolosako maistra bat izan zuen denbora askoan. Umetako okerkeriak; zigorrak. Klaseak erdaraz; garai hartan dena erdaraz izaten zen. Euskaraz eginez gero, zigorrak. Cara al Sol. Zer ikasten zuten: matematika, geografia...

11. Dotrina buruz ikasi beharra

- **Erref**: ESK-030/014
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:33:55. **Bukatu**: 00:36:20

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Dotrina, buruz ikasi behar izaten zuten. Ganaduzain joaten zenean ere dotrina-liburua eramaten zuen. Igande arratsaldetan bezperak; orduan ere dotrina ikasten zuten.

12. Baserritarren eta abadearen arteko harremana

- **Erref**: ESK-030/015
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:36:20. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Auzoko abadea. Baserritar bakoitzak urtero abadeari gari-kopuru bat eman behar izaten zion. Auzoko abadeak ere ortu txiki bat zuen; abadearen "amakazia".

13. Jaunartzea; monagilo lanak

- **Erref**: ESK-030/016
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:39:00. **Bukatu**: 00:42:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Jaunartzearen inguruko azalpenak. Gerora monagilo ere ibilitakoa da. Abadea ehiztaria zen eta goizean goiz eman nahi izaten zuen meza, eguna ondo aprobetxatzeko. Abadearen jatorria; nongoa zen.

14. Eskekoak aterik-ate; abadeak guztiei jaten ematen zien

- **Erref**: ESK-030/017
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:42:20. **Bukatu**: 00:44:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Abadea nolakoa zen. Lehenago jende asko ibiltzen zen eskean aterik ate. Abade-etxetik denak bazkaldu edo afalduta joaten ziren. Fraideak eta mojak ere eskean ibiltzen ziren.

15. Mezak nolakoak izaten ziren; monagiloaren lana

- **Erref**: ESK-030/019
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:48:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Monagilo ibilitakoa 14 urtera arte. Bere egitekoak zeintzuk izaten ziren. Latin ikasi behar izan zuen. Prozesioak. Abadeak meza latinez ematen zuen eta jendeari bizkarra emanez.

16. Sakristauaren eginbeharrak

- **Erref**: ESK-030/020
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Sakristauaren eginbeharrak: kandelak piztu; kanpaiak jo... Kanpai klaseak.

Transkripzioa
- Eta gero, ez dakit, kanpaiak jo eta hori zeuen lana izaten zan edo...?
- Bai.
- Bai?
- Hori makiña bat urtien eindde [ga´] sankristau. Sankristaue izeten zan, ba, kanpaiek jo kandelak ixotu ta holako lanak eitteko.
- Orduan, hori sakrisatuan lana?
- Sankristaue izentauta egoten zan. Ta kanpaiek, ba, mezetarako-ta joten zien, ta gero joten zan “harri-kanpaie” esaten jakona goxien, goxien egune zabalketaako edo hola, egune zabalketako inguruan. Ta gero gabien illuntzera doiela “aramaittakua”. Ta gero eguardixen egoten zan denporaldi bat “letxuga-kanpaiek” esaten jakon. Zerera, kanpantorrera gora igo ta errepikak errepikak joten zien.
- Eta hori zegaittik?
- Errepikak ez dakitzu zer dian?
- Bai, bizkor-bizkor, ez?
- Kanpai bikin., kanpai bikin, kanpai bikin jota.
- Baiña hori, letxuga-kanpaia, zegaittik esaten jakon horri?
- Letxuga-kanpaia esaten jakon, ba, ez dakit, letxuga denporan joten zalako edo. Santikutzetik Santikutzera. Santikutz bi daz, bata maiatzien ta bestie... oktubrien? Bai, bestie oktubrien izengo da. Ta Santikutzetik

Santikutzera joten zien horreik.
- Letxuga-kanpaiak...
- Letxuga-kanpaiak horreatik esango jakon. Ba, ez dakitzu? Letxuga denporie, letxugak dazen denporie edo.
- Orduan hori sakristauan lana izaten zan, baiña.
- Sankristauan lana izeten zan.
- Ta zeuek laguntzen zetsazuen edo... Monagilluak, ez dakit, okerkerixaren bat eingo zenduen kanpaiekin edo, ez? Holako... Ez dakit, kanpaidorrera igo ta...
- Monagilluek?
- Bai. Halakorik ez zenduen eitten?
- Ba! Ez geuen holako istorixa haundirik eitten guk.
- Orduan, urte askuan monagillo...
- Bai.
- Eliza kontuak ondo ezautuko dozuz, gaiñera, ez?
- Bueno!

17. Abadearen bedeinkazioak

- **Erref**: ESK-030/021
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:50:20. **Bukatu**: 00:52:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Abadea baserrietara joaten zenean bedeinkapenak ematera, monagiloak laguntzen zion. Orduko kontu batzuk. Bedeinkazioaren truke, oilaskoak ematen zitzaizkion abadeari.

18. Oiloak eta oilaskoak nola hazten ziren

- **Erref**: ESK-030/022
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:52:25. **Bukatu**: 00:53:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Oiloak eta oilaskoak nola zaintzen eta hazten ziren. Kanpoan edukitzen ziren normalean.

19. Elikadura baserrietan

- **Erref**: ESK-030/023
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:53:55. **Bukatu**: 00:57:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Elikadura baserrietan. Egunero-egunero babak jaten zituzten normalean. Igandeetan garbantzuak. Gosaltzeko eta afaltzeko zer jaten zuten. Taloa, morokila, "ahixe". Neguan gaztaina asko jaten zituzten.

20. Gaztaina-saltzen Gasteizera joaten ziren; elikadura baserrietan

- **Erref**: ESK-030/024
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:57:15. **Bukatu**: 00:59:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Gaztaina asko batzen zituzten inguruan. Gasteizera ere joaten ziren gaztainak saltzera. Gerora gaitza sartu zitzaien eta gaztaina-basoak galdu egin ziren. Gasteizera joateko joera handia. Gabon, jai egun berezietan, gauza bereziak prestatzen ziren jateko. Iturriko ura; ardoa.

21. Ardoa zahagietan erosten zen; sagardoa

- **Erref**: ESK-030/025
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:59:35. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Ardoa, alhondigatik zahagietan ekartzen zen baserrietara. Sagardo gutxi edaten zen inguruko baserrietan. Sagardorik ez zen egiten normalean; sagarrak saltzera eramaten ziren. Sagar-klaseak.

22. Gaztaina batzea

- **Erref**: ESK-031/001
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Gaztainak "koskola"rekin ekartzen ziren etxera. Behar ahala, aletu egiten

ziren. Gaztainak batzeko "mordazia" erabiltzen zuten. Basotik ere bizimodua ateratzen zen.

23. Baserritik kalera lanera; Eskoriatzako industria garrantzitsuak

- **Erref**: ESK-031/002
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:01:35. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Baserriko bizimodua; etxeko ekonomia. 26 urterekin lantegira joan zen lan egitera. Kooperatibak hazten zeuden garaian, lana aurkitzea nahiko erraza zen. Inguruko lantegi ezagunak: Unión Cerrajera, Elma; etab.

24. Lan-baldintzak; lanaren nondik-norakoak

- **Erref**: ESK-031/004
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Lanaren nondik-norakoak. Lan-baldintzak.

25. Lan-baldintzak; emakumeak lan munduan

- **Erref**: ESK-031/009
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:13:00. **Bukatu**: 00:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Lan baldintzak. Larunbat goizetan ere lan egin behar izaten zuten. "Sábado inglés". Oporrak. Emakumeak lan-munduan.

26. Gaztetako ibilerak: erromeriak... Lagunarteko giroa nola aldatu den

- **Erref**: ESK-031/010
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Gaztetan, igandetan irteten ziren lagunekin dantzara... Gatzagako erromeriak... Dantza lotua, soltea. Inguruko zenbait herritan dantza lotuan egitea gaizki ikusita zegoen. Lagunarteko giroa. Lehenagoko ume eta gazteak, eta gaurkoak.

27. Umetako jolasak; neska-mutilak elkarrekin

- **Erref**: ESK-031/011
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak: "pañeloka"," toka-torreka", etab. Futbolean, pilotan edo halako jolasetan gutxitan aritzen ziren. Eskolan, neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Neska-mutilak jolasean.

28. Garizuma garaiko jolasak, debekuak

- **Erref**: ESK-031/012
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Garizuman, txirikilarekin jolasten zuten. Garizuman gauza asko debekatuta egoten ziren: dantzan egitea, musika...

29. Umetako jolasak: intxaurrekin, txapekin...

- **Erref**: ESK-031/013
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetako jolasak. Intxaurrekin; txapekin....

30. Burdi gainean egiten zituzten jolasak

- **Erref**: ESK-031/014
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:22:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Gurdiaren gainean egiten zituzten jolasak.

31. Gaztetako kontuak; auzoen arteko tira-birak

- **Erref**: ESK-031/015
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:26:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Gaztetako giroa. Auzoen arteko gazteen arteko hartu-emanak. Borrokak. Marin auzoari "Marin txikito" esaten zitzaion.

32. Neska eta mutilen arteko banaketa; jai egunetako giroa

- **Erref**: ESK-031/016
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:28:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Eskolan, neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Eskolaz kanpo, gaztetan, lagun-taldeak mutil edo neskenak izaten ziren. Jai egunetako giroa; Gatzagako erromeria.

33. Auzoetako erromeriak; inguruko herrietako jaiak

- **Erref**: ESK-031/017
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:28:25. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromeriak inguruko herrietan. San Cristobal. Auzoetako jaiak. Bolatokiak. San Pedro jaietan Eskoriatzara joaten ziren. Korrikalariak; lasterketak.

34. Soldadutza kontuak

- **Erref**: ESK-031/019
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:35:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutza kontuak.

35. Pilotarako zaletasuna; bolatokiak inguruan

- **Erref**: ESK-031/020
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:35:25. **Bukatu**: 00:38:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Jaiegunetan bolatokiak prestatzen ziren auzoetan. Zarimutz auzoko bolatokia non zegoen. Pilotarako zaletasuna. Eskoriatzako bolatokia. Apustuak; txapelketak.

36. Boletan nola egiten zen: teknikak, lexikoa

- **Erref**: ESK-031/021
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:38:35. **Bukatu**: 00:41:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:
Boletan nola egiten zuten. 3 txirlorekin egiten zen boletan. Teknikak; lexikoa.

37. Apustu kontuak bolatokietan

- **Erref**: ESK-031/022
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:41:55. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Apustu kontuak nola egiten ziren.

38. Bola-jokoaren inguruko azalpenak

- **Erref**: ESK-031/024
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:48:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bolariak inguruko herrietara ere joaten ziren. Bolak jasotzen ibiltzen ziren mutikoek ere zerbait irabazten zuten. Bola-jokorako zaletasuna noiz hasi zen galtzen. Auzoetako jaien beherakadarekin batera, bola-jokoa ere galtzen hasi zen. Emakumerik ez zen ikusten bolatokian.

39. Herri-kiroletarako zaletasun gutxi

- **Erref**: ESK-031/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:48:10. **Bukatu**: 00:49:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Herri-kiroletarako zaletasun gutxi inguruan.

40. Artzaintzarako toki desegokia

- **Erref**: ESK-031/027
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:50:25. **Bukatu**: 00:53:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Artzain gutxi egon da inguruetan.

41. Inguruko errekak

- **Erref**: ESK-031/028
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Errekak inguruan.

42. Iturrira ur-bila

- **Erref**: ESK-031/030
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:55:30. **Bukatu**: 00:56:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Lehenago iturrira joan behar izaten ziren ur-bila.

43. Auzoko bideak

- **Erref**: ESK-031/031
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:56:10. **Bukatu**: 00:57:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:
Auzoko bideak.

44. Trenaren inguruko azalpenak

- **Erref**: ESK-031/034
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:59:10. **Bukatu**: 01:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Trenaren inguruko kontuak. "Tren obrero".

45. Aita trenbidearen inguruko lanetan jardundakoa

- **Erref**: ESK-031/035
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:01:15. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Aita trenbidea egiten jardundakoa zen. Erdaraz ikastera ere Arabara joan zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-13

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com